


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# 1. Buletina

2019/05/22

**Genero Sozializazioa eta  
Eskola Testuingurua:  
Hobekuntzarako gakoak**



**gandere**

Genero Sozializazioa eta  
Hezkuntza Testuinguruak



Lehenengo buletin honetan "*Genero Sozializazioa eta Hezkuntza Testuinguruak: Hobekuntzarako gakoak*" Jardunaldia aurkezten da. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) [Berdintasunerako](#) [Zuzendaritzak](#) subentzionatuta eta GANDEREk, UPV/EHUko Ikerketa Taldeak [GIU15/14], antolatuta Donostiako Carlos Santamaria Zentroko auditorioan.

GANDERE Taldeak, genero sozializazio positiboarentzako lagungarriak izan daitezkeen jarduera egokiak identifikatu, sustatu eta hedatu nahi ditu hezkuntza testuinguru desberdinetan: eskolan, familian, mediatikoan eta sozialean.

Aldi honetan Jardunaldia eskolan zentratu zen, generoarekin eta hezkuntzarekin lotura zuzena duten gaur egungo ikerketak aurkezteko xedearekin eta baita ere, arlo honetan esku-hartzea hobetzeko hausnarketak jasotzeko eta Euskal Autonomi Erkidegoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskoletan gauzatzen diren esperientziak partekatzeko.

Jarraian Jardunaldiko hitzaldien laburpena aurkezten da eta baita ere, kontsultatu daitezke [GANDERE](#) webgunean publikatuta dauden bideo grabaketak.

**Egilea:** GANDERE Taldea.

***Azaleko irudia:***

Cross, H. (1905-1908). *Izar-paisaia [paper zuri eta lisoaren gaineko akuarela]*. Nueva York: Arteko Museo Metropolitanoa (MET).

***Informazio gehiagorako idatz ezazu [gandere@ehu.eus](mailto:gandere@ehu.eus) posta elektronikora edota bisita ezazu [www.gandere.eus](http://www.gandere.eus) webgunea.***

## Ikastetxeak generoaz zeharkatuta

Trinidad Donoso Vázquez Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen sailean irakasle titularra da. Berdintasunarekin lotutako gaietarako, Errektorearen ordezkaria izan zen 2014tik 2016ra. Generoari buruzko bere ikerketa lanak 90 hamarkadan hasten dira, lanbide orientazio ez sexista lantzen zuenean. Bere lanbide ibilbideak unibertsitateko emakumeak eta lan-merkatuarekin lotutako gaiekin jarraitzen du, Bartzelonara migratu zuten emakumeen beharretaz, genero indarkeria pairatu duten emakumeengan eskuhartzea, generoaren ikuspuntuaren sarrera Unibertsitatean, besteak beste. Euren bikoteengandik tratatu txarrak jasotako emakumeentzako programa psikosozialak sortu ditu. Bere azken proiektuen artean indarkeria matxista jaso duten emakume eta seme-alabei osoko arreta, eta genero indarkeriei buruzko ikerketak 2.0 daude. Gainera, Ángeles Rebollo Catalánek eta Luisa Vega Carorekin honako liburuak argitaratu ditu oraintsu: "La Universidad en clave de género" eta "Violencias de género en entornos virtuales" Octaedro argitaletxean.

Lehenengo hitzaldian, Trinidad Donoso Vázquez-ek (Bartzelonako



Unibertsitatea) eskola genero ikuspegitik eraldatzeko garrantzia argudiatu zuen, zeren *"generoz hesituta gaude, jaio aurretik jartzen diguten armadura bat da eta ez digu uzten hesi horretatik at mugitzen"*

Genero klabeetan gauzatzen den eskolak honako elementuak uztartzen ditu:

1) generoaren hesietatik at, neska eta mutilen garapen osoa sustatuko duen esku-hartze intentzioskoa.

2) desberdintasunen errekonozimendutik genero estereotipoak eraldatu nahi dituen, ordena patriarkalarekin, eskolako curriculumak eta egungo zientziak beraian dakarren androzentrismoarekiko kritikoa dena (García-Gracia & Donoso, 2013).

3) generoek ezartzen dituzten mugak gainditzea suposatzen du eta tradizioz, femeninotzat eta maskulinotzat hartzen diren jarrera eta baloreak elkarrekin existitzea, edozein izanda ere pertsonaren sexua onartuak eta lortuak izan daitezkeelarik.

4) bizitzako bi eremuak barne hartu beharko lituzke (pribatua eta publikoa) kulturako oinarriko ezagutzak jabetuaz, ekonomiako eta etxeko administrazioko ezagutza teorikoak eta praktikoak landuaz, beraien osotasuna ahalbidetuko duen hezkuntza afektibo sexuala bideratuz eta onartuz eta ordainduta egongo den lanbide bat lortzen lagunduz. (Peraza & Carreras, 2011).

Horrelako eskola batetarantz eraldaketak ikastetxearen



funtzionamenduaren prozeduran hainbat aldaketa sartzea suposatzen du (irakaskuntza metodologia, eskola antolakuntza, curriculum eta testuliburuak, hizkuntza eta espazio formalak eta ez formalak, curriculum izkutua), parte hartzen duten agenteen ekimena (irakasleria, ikasleak eta familiak) eta maila desberdinetan, pentsaeretan (eskudantziak, sinesmenak, baloreak eta generoei buruzko estereotipoak), diskurtsoan (hizkuntza eta komunikazioa, diskurtsoko kodeak, sinboloak eta metaforak) eta jokatzeko moduetan (egitekoak, pertsonen gauzatzen dituzten rola, identitate sexualak errespetatu, espazioen erabilerak).



Gaur egungo erronka ez da bakarrik eskolen eraldaketa lortzea generoaren ikuspuntutik, baizik eta baita ere zaintzaren etika aintzat hartzea, bai neskak eta bai mutilak norbere burua zaintzen ikastea, besteak zaintzen ikastea eta ingurua zaintzen ikastea.

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)

## **Berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**



Araceli Ángulo Vargas Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako irakasle, aholkulari, irakasle laguntzailea eta zuzendari izan da 1981 urtetik. 7 urtez egin zuen lan Barakaldoko Berritzegunean etaartzelona ikasi zuen Hezkidetzaren Postgradua. Urteetan zehar, hezkidetzaren inguruan lan egiten zuen mintegi bat koordinatu zuen. 2007tik ISEI-IVEI-eko psikopedagogia taldearen koordinatzailea da. Era berean, erakunde horren berdintasunaren teknikaria da. "La Igualdad de Género en la Educación Primaria y ESO en el País Vasco"-ren idazleakidea da.

Araceli Ángulo Vargas-ek (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, ISEI-IVEI) ikuspegi zabal bat eskaini zigun Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasunaren inguruan. Hitzaldiaren lehen atalean, generoaren berdintasunaren eta hezkuntzaren adierazle batzuen berrikusketa egin zuen, eta emaitzetan mutil eta nesken arteko desberdintasunak adierazten zituen. Orokorrean, errendimenduari dagokionez, neskek emaitza hobek ateratzen dituzte eta era berean, eskolazuzte eta errepikapen tasa txikiagoak agertzen dituzte. Datu hauek, beste hamarkada batzuekin konparatuz, berdintasunaren arloan hobekuntza gertatu dela adierazten dute, nahiz eta oraindik ibilbide luzea daukagun zain. Kontutan hartuta, "ez dagoela gure kultura heteropatriarkaletik kanpo dagoen eskolarik", errealitate hau

pixkanaka aldatzen ari dela eta eskolak balio berriz janzten ari direla, balio iraunkorrez, esan dezakegu zorionez. Bigarren atalean ["Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana"](#)-rekin lotutako (2013-2017) hausnarketa batzuk azaldu zituen. Plan honek bost erronka handi planteatzen zituen: 1) hezkidetzaren oinarritutako eskola eredu sakondu eta generoaren ikuspuntua planteamendu integral batetik aurkeztu; 2) ikasleek bere ibilbide akademiko-profesionalean askatasunez, genero baldintzarik gabe, aukera ditzaten lagundu; 3) genero ikuspuntutik, hezkuntza porrotari erantzuna eman eta hezkuntza sistemarako sarbide unibertsala bermatu; 4) sexu harreman osasuntsuetarako eta sexu aniztasun, gizon eta emakumeen arteko

berdintasunean oinarrituriko bizikidetzan hezi; eta 5) genero indarkeriaren prebentzioa sustatu. I. Hezkidetza-Plana abiatu zen heinean, 200 eskolek parte hartu zuten proiektu espezifikoetan, hauen artean 10ek osoko proiektuekin.

Zuzendari taldeen arabera, irakasleek berdintasunaren arloan, formakuntza jaso zuten, zehazki, genero indarkeriaren prebentzioan, sexismoan eta aniztasun sexualean.


Ia eskola guztiek berdintasunarekin lotzen diren gaiak onartu dituzte eta genero indarkeriaren prebentzioa euren eskolako plan eta proiektuetan, jarduera zehatzak burutuz edo eta eskolen erdiek egin duten bezala, eskolako programazioetan gehituz. Osoko proiektua eduki zuten bederatzi eskolek honako emaitzak agertu dituzte: 1) lidergoaren garrantzia zuzendari

taldeetan; 2) Komisioen indartzea eta berdintasunaren teknikarien izendatzea; 3) orientatzaileen eta tutoreen inplikazioa; 4) ikasleei, irakasleei, gurasoei eta hezkuntza komunitatean parte hartzen duten beste profesionali zuzendutako formakuntza jardueren garapena; 5) batez ere gatazken aurrean "betaurreko moreak" janztearen garrantzia; 6) hezkuntza afektibosexuala lantzeko zailtasunak; eta 7) jolas garaiaren erabilpenari buruzko kezka.

Orokorrean, eskolako bizikidetzeta eta gatazken aurrean duten erantzunak hobetu egin dira, eta baita ere, eskola hauetakoren bat gai honetan, eskola formatzaile bihurtu da.

Berriki, [EAE-ko Hezkuntza-Sistamarako II. Hezkidetza-Plana, Berdintasunaren eta Tratu Onaren Bidean \(2019-2023\)](#) onartu da. Etorkizunari begira hizlariak ondorioztatu zuen berdintasunak

"bekaizkeria kooperazio adimentsuan bilakatzen laguntzen digula" (Bacete, 2017)



eta "generoen desagertpena eta gizarte androgino eta ez androzentriko" baterantz goazela (Subirats, 2018).

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)

## “Elkarrekin” proiektua: ikasleekin berdintasuna lantzen

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoa Lekeitioko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeko irakasle eta zuzendaria da. Irakaskuntzan eta hezkuntzan genero ikuspegia txertatzen esperientzia luzea dauka. Ikastetxe hau aitzindari izan da genero berdintasunaren aldeko proposamenak ezartzen. “Mejora de la práctica docente (2013), Coeducar en la escuela infantil: Sexualidad, amistad y sentimientos (2015) eta Eskolatik eskolara (2016)” izeneko liburuen egile da eta hezkuntza aldizkarietan hainbat artikuluren egile ere bada.

Xabier Iturbe Gabikagojeaskoak (Lekeitio HLHIko irakasle eta zuzendariak) bere hitzaldia hasi zuen “Elkarrekin” proiektuaren marko orokorra azalduaz. Proposamen pedagogiko hau ikasleen artean berdintasuna sustatzeko asmoz sortu zuten.

Proposamen hau bultzatzen duen eskola Ikas-Komunitate bat da eta beraien hezkuntza proiektutik lau helburu orokor azpimarratu zituen:

1) ikasleen konpetentzia akademikoa; 2) eskolan lan egiten duten pertsona guztien formakuntza; 3) hezkuntza komunitatearen parte hartzea erabaki hartzeetan; eta 4) elkarbizitzan oinarritutako harremanak, zeinak, aldi berean, lau lan ildo lantzen dituen: hezkidetzeta eta sexualitatea, tutoretza eta kulturartekotasuna, afektuak eta emozioak, eta azkenik, gatazken kudeaketa eta ebazpena.



Oinarri teoriko gisa *gizarte likidoa* (Bauman, 2002), *arrisku gizartea* (2013) eta informazioaren gizartea bezalako

kontzeptuak berrikusi zituen. Aldaketa hauen ondorioz demokratizazioa, eta elkarrizketaren eta arrazonomenduaren erabilera handiagotu direla adierazi zuen, baita giza eskubideak eta berdintasuna gure testuinguru hurbilean bultzatu direla ere. Ordea, bere ustetan errealitateak erresistentzia adierazten du gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean, eta adibide gisa ondorengoak aipatu zituen: alardea, telefono mugikorren inguruan Lea-Artibaien egindako ikerketa, mutilek neskekiko ezartzen duten kontrolaren adierazgarri gisa, edota maitasun erromantikoan rolen esleipenean sortzen diren desparekotasunak.

Hezkuntzaren ardura izan da tradizioz berdintasuna bultzatzea, eta honen adibide dira Delors informea (1996), [Heziberri 2020](#) proiektua edo adimen anitzen inguruko Gardner-en proposamena (1994). Ekarpen hauetan oinarritzen da Lekeitioko eskolako

Elkarrekin programa. Programa honek barne hartzen du hezkidetzaren tratamendua irakaskuntza eginkizun guztietan, neska eta mutilen arteko aniztasunaren aitortzea, emakumeen kontrako biolentziaren prebentzioaren antolaketa, eta azkenik, emakumeen ekarpenak curriculumean.

Sexu hezkuntzari lotuta azpimarratu zuen maitasunaren kontzeptualizazioa berdintasunetik bultzatzeak eta nortasun sexualaren garapen integrala bultzatzeak duen garrantzia. Azken honek barne hartzen du transexualitatea, sexismoa bultzatzen duten egoerak identifikatu eta gainditzea, erlazio sexualetarako eta aukera erotikoetarako erakarpenaren oinarriak ezagutzea, eta ezabatzea genero estereotipoekin loturiko rol mugatzaileak.

Ikasleen kontzientzia afektibo eta emozionala garatzeak eskatzen du ongizate subjektiboa bultzatzen duten aldagaien kontzientzia hartzea,

trebetasun emozionalak garatzea, samurtasuna, maitasuna, sentikortasuna eta leuntasuna bezalako emozioak sozializatzea, eta baita objektu eta pertsonetikiko afektu baikorra azaltzen ikastea ere. Horretarako garrantzitsua da espazioak antolatzea eta kudeaketarako eta gatazken ebazpenerako ekintzak planifikatzea, eta elkarbizitza hobetzeko neurri zehatzak hartzea, aniztasuna artatuz kulturartekotasunetik eta eskola babes eta segurtasun gune bilakatuz.

Genero biolentziaren prebentzioa hezkuntza eragile guztien arteko eztabaida bultzatuz eta espazio ireki batzuen laguntzaz bideratu zuten. "Ez ezetz da" lema laguntzen ditu genero biolentziaren prebentzioari loturiko ekimen guztiak. Adierazi zuen, halaber, zeinen garrantzitsua den tratu txarrei emango zaien erantzuna adostea. Zeren ez da nahikoa bakoitzak bere iritzia izatea edota bere erabakiak hartzea.

Hainbat materialen berri eman zuen eta proposatu zuen astean 3 edo 4 saio eskaini zitezkeela ondorengoei; ikasleen arteko foroak antolatzeari, elkarbizitza behatokia antolatzeari, babes lagunak izateari, bitartekaritzarako espazioak sortzeari, iradokizunak jasotzeko kutxa sortzeari, harrera jardunaldiak antolatzeari, soziogramak, ospakizunak, talde interaktiboak eta kooperatiboak martxan jartzeari eta abar. Bereziki azpimarratu zuen talde lana, erlazionatzen eta elkarbizitzen ikasteko tresna gisa. Adierazi zuen zeinen garrantzitsua den jolas orduetako lana, eta arauak eta jolasen erabilerak, espazioak eta harremanei dagozkien alderdiak hitzartzea. Azkenik, nabarmendu zuen eskolan egindako lan pedagogikoa jaso, partekatu eta publikatzeak duen garrantzia.

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)



## Hezkuntza mistotik hezkidetzara bidean

Txaro Etxeberria Zubeldia Haur eta Lehen Hezkuntzan kontsultorea da, eta Iñigo Navascues Arana Bigarren Hezkuntzako Orientatzailea, biak Tolosako Herrikiden lan egiten dute.

Txaro Etxeberria Zubeldia eta Iñigo Navascues Aranak, beraien azalpenean, bidearen abiapuntua elkartu ziren hiru eskolen fusio momentuan jartzen dute.

Elkarrekin egin beharreko proiektu baten beharra sumatu zuten eta aldi berean, neska eta mutilen artean zegoen desberdintasunaz kontzientzia hartu zuten. Herrikide konpetentzien garapenean uztartzen den proiektu baten eraikuntza gauzatzen hasi zen, horrela, adimen anitzei loturik dauden pertsona arteko trebezien garrantzia azpimarratuz, bereziki adimen emozionala eta gatazken kudeaketa.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren adimen emozionalari buruzko programa aipatu zuten eta aditzera eman zuten, parte hartu zuten hasiera hasieratik programa hori burutzeko materialen sorreran. Gainera, momentu honetan material hauek erabiltzen dituzte dagokien konpetentzien irakaskuntza garatzeko. Adimen emozionala eta gatazken kudeaketa ikastetxeko elkarbizitzarako bi zutabe nagusi direla azaldu zuten.

Ikastetxeari buruz egindako analisiaren ondorioz, bi helduleku interesgarri aipatzen dituzte: alde batetik, espazioen

erabilera, bereziki jolastokiak jolasgaraietan, eta gainera, familiek luzatutako eskaera bati erantzuna ematea: euren seme alaben hezkuntza berdintasunean nola garatu.

Esan zituzten ideien artean familiekin egin beharreko elkarlana azaldu zen; alde batetik, ikasleen hezkuntzan koherentziaz eskuhartzeko, eta gainera bai familiak eta bai irakasleak elkar formatzeko, elkarrekin ikasteko. Hainbat gaiei buruzko sentikortasuna egon zela adierazi zuten (elkarbizitza, hezkidetzeta, adimen emozionala, gatazken kudeaketa), horrela sortu zen "Elkarrekin" proiektua, gai hauekin lotutako edozein gora behera artatu ahal izateko.

2014tik Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentziorako I. Planean parte hartu

dute. Ikastetxeko ikasleei elkarrizketa bat egin eta pentsamendua aztertu zutenean, jakin zuten generoarekin lotutako estereotipoan birstutu egiten zirela: neskek familia sortu, zaindu, eta mutilek, esparru teknologikoak boteredunak eta prestigidunak aipatzen zituzten bere modura. Horrela erabaki zuten kontu hauek orain arte landu zena baina gehiago landu beharra zituztela.



Hezkuntza afektibo sexuala lantzeko hainbat erakundeek laguntza daukate,

besteak beste, udaletxearena. Hausnarketarako beste gune bat jolastokia izan zen, ikasleriarekin batera planteamendu berri bat sortu zuten, berdintasuna sustatzeko.

Ildo beretik, etxeko eginbeharren gaia jorratu dute, eta etxean denek artean egiteari ikastea garrantzia emanez. Txaro Etxeberriaren ustez garrantzitsua da *“salbuespen bat bezala ez artatzea da, curriculumetik eta ohikotasunez lantzea da, ontzat eta normaltzat paritatea izatea da”*.



Horretaz gain, komunitate osoan parte hartzen duten pertsonen partehartzea bermatzea oso garrantzitsua dela adierazi zuten, bereziki jangelan lan egiten zutenen partehartzea indartzea.

Erasmus Plus bezalako proiektuetan ikasleen partehartzea ere indartzen saiatzen dira, hain zuzen ere proiektu honetan emakume gazteen eskubideak babesten dituen proiektu bat delako, eta modua erakargarria gertatzen delako ikasleentzat, Alemania bisitatzea suposatzen duelako.

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)

## ***Dirty dating* eta nerabeen arteko gorteaketan eman daitekeen indarkeriaren arriskua: eskolatik lanean**

Carmen Viejo Almanzor, Irakasle Interino Ordezkoa da Cordobako Unibertsitatean. Bere goi mailako formakuntza Sevillako Unibertsitatean hasi zen, Magisteritza Lehen Hezkuntzako Diplomatura (2004) eta Psikopedagogian Lizentziatura (2007) tituluak eskuratuz, Karrera Amaierako Sariarekin. Epealdi honetan Sevillako Unibertsitatean, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Sailean, hasi zuen bere formakuntza zientifikoa, "Laboratorio de Estudios para la Convivencia y Prevención de la Violencia (LAECOVI)"-an, Rosario Ortega-Ruiz Doktoarearen zuzendaritzapean, "Acciones Integradas España-Italia (código HI2005-0452)" Proiektuan partehartuz. 2008 urtean Cordobako Unibertsitateko Europar Proiektu bati zegokion ikerketa beka bat lortu zuen. 2009 urtean Unibertsitateko Irakasleen Formakuntzarako Ministeritzako beka (FPU) bat lortu zuen (2009-2012). Epe honetan ere graduondoko ikasketak burutu zituen "Investigación e Intervención Psicológica en Justicia, Salud y Bienestar Social" (2008-2010) Masterra eta Doktoradutza eginez. 2012eko uztailean "*Dating Violence*

Cortejo Adolescente" atzerriko aipamena duen Tesia defendatu zuen, Cum Laude aho batez kalifikazioa jasoz eta "Consejería de Presidencia de la Junta de Andalucía (Centro de Estudios Andaluces)"-ren eskutik tesien lehen saria irabaziz.



Carmen Viejo Almanzor-ek (Cordobako Unibertsitatea) hainbat ikerketen emaitzak aurkeztu zituen: gorteatzearen esanahia nerabezaroan eta mutilen eta nesken arteko desberdintasunak *dirty dating* eta *violence dating*-en pertzepzioan.

*Dirty dating* erlazio eredu gogorra litzateke (Fosheé & Reyes, 2011; Sebastian et al., 2010) jokabide oldarkorrekin, hauek bi pertsonentzat normalizatuak eta onartuak direnak.

Nerabezaroan bikote harremanek premia psiko-ebolutibo ezberdinak asetzen dituzte eta doikuntza psikologikoan eta nerabeen ongizatean eragina dute (Old et al., 2015). Garrantzitsua da harreman hauen hasieran portaeraren interpretazioa aztertzea, joko erotikozakarraren (*dirty dating*) eta indarkeriazko jokabidearen (*violence dating*) arteko lerroa fina baita. Nerabezaroan bikoteari esleitzen zaion esanahiari buruzko ikerketaren garrantzia portaera bortitzen hasierako elementuak ezagutzean datza, azken finean, hauei aurrea hartu ahal izateko. Hizlariak arlo honetan buruturiko

ikerketen emaitzak aurkeztu zituen hainbat gai jorratuz, hala nola, arrisku faktoreak versus kalitatezko faktoreak nerabezaroan sortzen diren bikote harremanen hasieretan, *dirty dating*-aren ezaugarriak eta portaera mota hauei neska eta mutilek egozten dizkieten esanahietan dauden ezberdintasunak.

Hitzaldiaren bigarren zatian bikote doituak eraikitze eta eskolan gaitasun sentimentala garatzeko hausnarketa eta iradokizun batzuk aurkeztu zituen. Zehazki esku-hartzearen helburuak berrikusi zituen, izaera pertsonala, bikotekoa edo testuingurukoa duten arrisku faktore nagusien inguruan esku-hartzea; eraginkorrak direla adierazi duten eta ebidentzian oinarritutako esku hartze proposamenak, eta baita gaur egun Andaluziako Autonomia

Erkidegoan garatzen ari diren beste batzuk ere.



Hizlariak azpimarratu zuen ikerketa taldeak diseinatzen ari den proposamenak "ez duela "zeharkakoa" izan nahi; zeharkakoa guztiontzat eta inorentzat izaten baita; atzetik datorrenari ematen zaio ardura hori burutzeko eta atzetik datorrena ere ez da arduratzen burutzeaz; araututako programa gisa sustatu nahi dugu eta momentuz saio zuzenen bidez ari gara

gauzatzen, zereginen bitartez, web elkarreragile batekin".



Inolako zalantzarik gabe, ikuspegi hau hezkuntza-ikerketa eta esku-hartze eremu oso itxaropentsua da, eskolan generoaren indarkeriari aurrea hartzeko.

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)

## Ernioeba Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea: Hezkidetza. Billabona

Beatriz Rubio Perales eta Eneko Aranguren Larrañaga (Ernioeba BHI, Billabona) irakasleek beraien ikastetxeetan, hezkidetzarekin lotuta, garatzen ari diren lanen azalpena eman zuten; momentu honetan Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako I. Plana gauzatzen ari direla adierazi zuten.

Berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko bidean, hezkuntza-komunitate osoa eta eskola bera, indargune garrantzitsua dira. Ernioeba ikastetxean hezkidetzaren aldeko lanean ibilbide luzea egin dute. Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana barruan hezkidetza proiektua garatu dute. 2014-2015 ikasturtean hasi ziren proiektua aurrera eramaten. Proiektuaren helburu nagusi

bat irakasleak eta hezkuntza komunitatea sentsibilizatu, trebatu eta proiektuaren prestaketa eta inplementazioan inplikatzeari izan da.

Proiektua hiru urtetarako izan bada ere hezkidetzaren alde lanean jarraitzen dugu. Hezkidetza eta berdintasunaren arloan aurrerapen handiak egin omen badituzte ere, gizartearen oro har gertatu den bezala, oraindik asko dago egiteko.



Aniztasunetik abiatuta berdintasunean heztea du helburu hezkidetzak eta bide

horretan, ikasturte hauetan Ernioeba BHI egindako ibilbidean sortutako egiturak, arduradunak eta egindako jarduerak aipatuko zituzten:

- 1) Hezkidetza arduraduna: Formazioa jaso eta formazio hori klaustroan zabaldu.
- 2) Berdintasun ordezkaria: Eskola kontseiluko ordezkaria izendatu.
- 3) Berdintasun batzordea: Ikastetxeko gatazkak aztertu genero-ikuspegia kontuan izanik.
- 4) Elkarbizitza Behatokia: Hezkuntza komunitateko estamentu desberdinen parte hartzea eta inplikazioa sustatzen du: gurasoak, irakasleak, ikasleak, jangelako arduraduna, zuzendaritza...
- 5) Hezkidetza proiektua Urteko Planean txertatu: Orientazio programaren barruan genero indarkeriaren

prebentzioa, harreman afektibo eta sexualen lanketa "sexu heziketa" tailerraren bidez, gurasoentzat sexu-heziketaren inguruko bilera-hitzaldia...



6) Hezkidetza txokoa: Hezkidetza eta genero-berdintasunaren inguruko informazioa zabaltzen saiatu.

7) Hezkidetza jolastokiak:

- Gela bakoitzeko ordezkari bat hautatu.



- Astean behin atsedenean elkartzen dira sentibilizazio saioak, sorkuntzarako saioak eta ekintzen antolaketarako saioak eginez.

- Ikasturtean zehar egun finkoetan (azaroak 25, martxoak 8, maiatzak 17) jarduerak burutzeaz gain, genero indarkeria, berdintasuna, sexu-aniztasuna, harreman afektibo-sexualak, lantzen dira ekintza desberdinak egin eta hausnarketa bultzatuz. Lan honetan ikasle eta irakasleek gurasoak eta udala hurbildu eta inplikatzeari lortu dute.



- Lasarteko Berritzegunean formazioa jaso eta jolastokiaren antolaketaren inguruko diagnostikoa egin da.

[Hitzaldiari dagokion bideoaren esteka](#)



## BIBLIOGRAFIA

- Bacete, R. (2017). *Nuevos hombres buenos. La masculinidad en la era del feminismo*. Barcelona: Península.
- Bauman, Z. (2002). *Modernidad Líquida*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Beck, U. (2006). *La sociedad del riesgo: en camino hacia otra sociedad moderna*. Barcelona: Paidós.
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madrid: Santillana ediciones, UNESCO.
- Foshee, V., & Reyes, H. (2011). Dating abuse: prevalence, consequences and causes. En J. R. Roger (Ed.), *Encyclopedia of adolescence* (pp. 602-615). New York: Springer.
- Gardner, H. (1994). *Estructura de la mente: la teoría de las inteligencias múltiples*. México: Fondo de la Cultura Económica.
- García-Gracia, M., & Donoso-Vázquez, T. (2016). Mixed schools versus single-sex schools: are there differences in the academic results for boys and girls in Catalonia? *International Journal of Inclusive Education*, 20(2), 149-167. doi: 10.1080/13603116.2015.1079269
- Peraza, C., & Carreras, A. (2011). *Coeducar des de l'àmbit local. Una aproximació al concepte de ciutats coeducadores*. Barcelona: Diputació de Barcelona.
- Sebastián, J., Ortiz, B., Gil, M., Gutiérrez del Arroyo, M., Hernáiz, A., & Hernández, J. (2010). La violencia en las relaciones de pareja de los jóvenes. ¿Hacia dónde vamos? *Clínica Contemporánea*, 1(2), 71-83. doi: 10.5093/cc2010v1n2a1



Subirats, M. (2018). *Cómo educar en la igualdad de género*. Bilbao: BBVA. Recuperado de <https://www.bbva.es/general/aprendemos-juntos/marina-subirats/index.jsp>

Viejo, A. (2014). *'Dating violence' y cortejo adolescente: un estudio sobre la violencia en parejas sentimentales de los jóvenes andaluces*. Sevilla: Centro de Estudios Andaluces. Recuperado de [https://www.centrodeestudiosandaluces.es/datos/publicaciones/tesis11\\_DatingViolence.pdf](https://www.centrodeestudiosandaluces.es/datos/publicaciones/tesis11_DatingViolence.pdf)



Donoso-Vázquez, T., & Rebollo-Catalán, M. A. (2018). *Violencias de género en entornos virtuales*. Barcelona: Octaedro.



Liburu honek nahi du genero-indarkeriaren ingurune hauetan gertatzen diren adierazpenak identifikatzen laguntzea, baita proposamenak eta errealitate honek planteatzen dituen beharrei erantzuteko garatzen ari diren ekimenak jakinaraztea ere.

*Iturria:*

<https://octaedro.com/producto/violencias-de-genero-en-entornos-virtuales/>

Rebollo-Catalán, A., Ruiz-Pinto, E., & Vega-Caro, L. (2018). *La Universidad en clave de género*. Barcelona: Octaedro.



Liburu hau abiapuntu bat bezala planteatzen da eztabaidarako eta gogoetarako genero presentziaren eta unibertsitateko prestakuntzako eduki zientifikoaren gainean, bere sartzeko ziurtasunak eta argudioak emanez.

*Iturria:*

<https://octaedro.com/producto/la-universidad-en-clave-de-genero/>

Subirats, M. (2017). *Coeducación, apuesta por la libertad*. Barcelona: Octaedro.




Gure gizartean, gizon eta emakume-profilak aldatzen ari dira, eta heziketak aldaketa horiek erraztera lagundu behar du. Zerk esan nahi du haur-mutila izatea? Zerk esan nahi du haur-neska izatea? Iraganean esan nahi zuenaz bestelako zerbait. Hala ere, maiz, heziketa saiatzen da modelo zaharrak oraindik inposatzen, inor hartaz kontzientea izan gabe batzuetan.

*Iturria:*

<https://octaedro.com/producto/coeducacion-apuesta-por-la-libertad/>

Ibarrola, B., & Etxeberria, T. (2017). *Inteligencias múltiples: de la teoría a la práctica escolar inclusiva*. Madrid: SM.



Eskola inklusiboak errespetatzen du, arreta ipintzen du eta desberdintasunak zaintzen ditu. Haietan ikusten du ondasun arrazoia, ikasle bakoitzaren garapen pertsonal eta soziala optimizatzeko abagunea. Ahalmena bezala adimena definitzerakoan, Howard Gardner-ek sartzean eragiten du, gara daitekeen trebetasuna bihurtzen du, nahiz eta beraren osagai genetikoa ez ukatu.

*Iturria:*

<https://www.casadellibro.com/libro-inteligencias-multiples-de-la-teoria-a-la-practica-escolar-inclusiva/9788467593617/6193137>

Iturbe, X. (2015). *Coeducar en la escuela infantil*. Barcelona: Graó.




Liburu honek sakontzen du haurren sexualitateko, bere jokaera berezietako, bere nahietako eta sentimendu sortu berrietako ezaugarri definitzaileetan, eta bere pentsamendu originalenetan. Gainera, pentsamendu hauek, sentimenduak eta portaera sexualak gauzatzen dira proposamen praktiko batean kompetentziekin, helburuekin, edukiekin eta irakasle bakoitzak bere ikasgelan zehatz ditzakeen jarduerekin.

*Iturria:*

<https://www.grao.com/es/producto/coeducar-en-la-escuela-infantil-bi040>

Angulo, A. Caño, A., & Elorza, C. (2017). *La igualdad de género en la educación Primaria y ESO en el País Vasco*. Bilbao: ISEI-IVEI, EJ-GV.



Euskadiko azterketa monografiko honen errealizazioa planteatu da genero-berdintasunaren egoera euskal heziketa-sistemaren nahitaezko irakaskuntza-mailetan diagnostikatzeko lehen saioa bezala. Egiaztatu dugu, orainera arte, era honetako ikerketak izan direla urri eta, batez ere, postnahitaezko maileri edo unibertsitateko ikasleei zuzendutako galdeketeran zentratuta.

*Iturria:*

[https://www.berrigasteiz.com/site\\_argitalpenak/docs/920\\_genero/9202017001c\\_Pub\\_ISEI\\_genero\\_berdintasuna\\_txostena\\_ED15\\_c.pdf](https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/920_genero/9202017001c_Pub_ISEI_genero_berdintasuna_txostena_ED15_c.pdf)